



# Zilarrezko Q-aren diploma Tolosa eta Ibarraiko ikastolei

**SAILBURUA** ▶ Anjeles  
Iztueta Hezkuntza sailburu  
tolosarra izan da banaketan

**KALITATEA** ▶ Euskaliten  
agiriak kalitateko kudeaketa  
saritzen du

**DIPLOMA** ▶ Abenduan jaso  
zuten saria bi ikastolek;  
atzo, berriz, diplomak ▶ 2

**ALKIZA** ▶



I. IZA / OARSOALDEKO HITZA

## Automozio lehiaketako finalera Madrilera

Josu Eizmendi iritsi  
da Dani Garcia  
ikaskidearekin ▶ 5

**LEITZA** ▶

## Bihar, 'Parle vu euskera' antzezlan zineman

Xagu taldeak eginda,  
Saharar Herriarekin  
elkartasunez ▶ 7



## Heriotza eta irria bihar 'El decameron' antzezlanean

**TOLOSA** ▶ Heriotza eta irria uztartzen dituen Boccaccio idazlearen *El decameron* antzezlan eskainiko du Ados Teatroak bihar 22:30ean Leidor zineman. XIV. mendean Florentzian izurriteak jo eta gaixoaldia bukatu bitartean lagun talde batek hiritik kanpoko etxegune batean babeslekua nola aurkitzen duen kontaketa du

obrak. Elkarri ipuin adimentsuak kontaketa aukeratzen dute denborapasa gisa. Garbi Losadaren zuzendaritzapean, Javier Barandiaran, Josean Bengoetxea, Jon Ezkurdia, Aitor Fernandino, Alvaro Garaialde eta Xabier San Sebastian aktoreak ariko dira taula gainean. Sarrerak salgai daude Kultur Etxean. HITZA ▶ 4

## HEZKUNTZA ▶

IÑIGO TERRADILLOS  
NOELIA LATABURU

Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, Gabriel Beldarrain Euskaliteko lehendakariak eta Juan Jose Agirrezabala Gipuzkoako Hezkuntza ordezkariek Zilarrezko Q-aren diplomak banatu zituzten atzo Ibarako Uzturpe eta Tolosako Laskorain ikastolatan. 16:30ean ailegatu zen Ibarrra, non aurrekuarekin harreman eman zitzaion. Ondoren, ikastolako instalakuntzak erakutsi zizkieten eta areto nagusian sari banaketari ekin zioten.

Lehen saio honetan Consuelo Romeo Ibarako alkatea eta Nekane Tolosa Uzturpeko zuzendaria izan ziren ordezkariekin batera. Ikastetxeko zuzendaria izan zen hitz egiten lehen. Sari hau jasotzea («une hunkigarria eta ederra») izan zela eta eskerrak eman zizkien denek, «guztion lanen ondorio baita saria». Alkateak hartu zuen hitzaren lekukoa eta «saria ohorea» dela esan zuen. «Udalak laguntzen du proiektu honetan eta herriko ikastola bakarrak Q-a izatea oso garrantzitsua da guretzat», gaineratu zuen. Euskalit-eko lehendakariak azaldu zuenez, «hobekuntzaren bidea jorratzen ari gara eta emaitza onak ari gara lortzen». Era berean, Zilarrezko Q-a lortu ondoren, Uzturpek eredu garri dela gogoratu zuen. Azkenik Iztuetak hitz egin zuen. Sari jasotzearen unea gogoratu nahi izan zuen berak ere. «Oso berezia izan zen nire baillarako bi ikastolek saria jasotzea eta zorionak eman nahi dizkiet» esan zuen sailburuak.

*Lunch*-aren ostean, Laskorain ikastolan egin zuten ekitaldiaren bigarren zatia. Diploma banaketan izan ziren beraien hirurekin batera, Tolosako alkatea Jokin Bildarratz

# Zilarrezko Q-aren diploma Laskorain eta Uzturpe ikastolentzat

Atzo arratsaldean banatu zituzten diplomak Anjeles Iztuetak, Gabriel Beldarrainek eta Juan Jose Agirrezabalak



Anjeles Iztuetak Laskorain ikastolako ordezkariek banatu zizkien diploma eta txapak. IRATXE ETXEBESTE

eta Joxe Martin Aizpuru Laskorain ikastolako zuzendaria.

Dena den, iragan abendua-ren 20an jaso zuten bi ikastola hauek Euskalit-eko (Kalitaterako Euskal Erakundea) Zilarrezko Q-a, Bilbo-ko Euskalduna jauregian egindako ekitaldian; atzokoa, bada, diploma bana-keta baino ez zen izan.

eta estrategia, pertsonak, aliantzak eta baliabideak, prozesuak, emaitzak bezeroetan, emaitzak pertsonetan, emaitzak gizarteetan eta oinarritzko emaitzak.

Eskema honek etengabeko hobekuntza irudikatzen du eta egin beharreko edozein egitasmoren oinarri bilakatu da. Hauek dira bikaintsunaren oinarriak: berriztatzea, kalitatea, ezagutzaren kudeaketa, etengabeko hobekuntza, prozesuak eta *benchmarking* —besteak beste egaitu eta egokitu—. ◀



Uzturpeko zuzendariak ikastola erakutsi zien hiru ordezkariek. N. L.

## BERASTEGI-BERROBI ▶

**Nerea Herrarte ipuin kontalaria bi herrietan**

Nerea Herrarte ipuin kontalaria izango da bihar Berastegin eta Berrobin. Berastegin 16:15ean egingo du saioa Herrartek liburutegian. Berrobin, berriz, 17:15ean izango da, liburutegian baita ere, Galtzaundi Euskara taldeak antolatuta.

## AIZTONDO ▶

**Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute**

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak. Bidaiaaren prezioa 7,5 eurokoa da. Mankomunitatea osatzen duten herrietakoren batekoa izanez gero, maitzaren 3a arte eman daiteke izena. Gainontzekoek maitzaren 4tik 6ra.

## BERASTEGI ▶

**Interneteko ikastaroak egiteko aukera**

Tolosako KZgunetik Berastegin bertan Interneteko ikastaroak antolatzeak aukera dagoela jakinarazi dute, taldeak osatzen badira. Egunkari eta ordutegiak zehaztu gabe daude oraindik, baina aste beteko ikastaroak izango lirateke, egun bakoitzean hiru orduko saioekin. Interesatuak etzi dute izen emateko azken eguna. Horretarako, Ixiar edo Maria Jesusekin harremanetan jarri beharko dira, 943 68 34 85 edo 943 68 33 38 zenbakietara deituz.

## BERASTEGI ▶

**Dinastia Vivanco ardo museora bidaia**

Berastegiko Gaztainondo elkarteak antolatuta, Dinastia Vivanco izeneko ardo museora egingo dute txangoa maitzaren 3an 09:15ean, ardoaren inguruan hainbat gauza ezagutzeko. Bazkaria ere bertan egingo dute. Egun pasa egin nahi duenak izen eman beharko du elkarteko zuzendariaren. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute; gainontzekoentzat 30 eurokoa izango da prezioa.

## Kalitatea saritzeko

Kalitateko Kudeaketarako Europako Fundazioa (EFQM) 14 enpresa garrantzitsuk 1988an sortu zuten erakundea da, etekinik ateratzeko asmorik gabe. Eredua enpresei kudeaketa aurreraturako sistema bat finkatzen laguntzen dien tresna erabilgarria da. Europa osoko 20.000 erakunde baino gehiagok erabiltzen dute. Hezkuntzara 1995etik aurrera hedatu da, gehienbat EAEn.

Bederatzi irizpidetan oinarritzen den lan esparrua da, bost eragile gisa eta emaitzak lau ataletan: lidergoa, politika

GUTUN@K 

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Apirilaren 28, Lan Osasunaren Eguna

2004 urtean 111 langile hil ziren, eta 63.000 baino gehiagok lan istripuren bat izan zuten. Euskal Herrian, deklaraturako lan istripu eta heriotza kopurua benetan da izugarria, baina datu hauek ez dute laztasuna osorik islatzen: hainbat istripu eta gaixotasun lanak sortzen dituela eskatzen da eta, hortaz, istripu edo gaixotasun arruntzat jotzen dira; honetaz gain, badira ekonomia murgildua, emakume langileen jardunaldi bikoitza, eta abar.

Hego Euskal Herriko istripuen kupurua Europako Bata-

suneoaren bikoitza da, heriotza dakarten istripuen %65 kontrata edo azpikontratetan gertatzen dira, eta %52 hogeita bost langile baino gutxiagoko enpresetan, langileriaren erdiak ikaragarriko lan erritmoa jasaten du, %40k zeregin monotonoak burutzen ditu, %33k bizkarreko mina dauka, %28k estresa, %15k jazarpen moralak edo erasoak pairatzen ditu, eta %65ek ez dauka bere osasunaren zaintza bermaturik.

Nor da sarraski honen erruduna? Patronalak erraminta bihurtu gaitu, erabili, hondatu, apurtu eta, azkenik, bota egiten gaituzte. Langileok beste baliabide material baino ez gara eta, beraz, besterik gabe ordezkatu ahal gaituztela uste dute. Euren etekin ekonomikoa da ardura

dien bakarra, gure osasunaren eta gure bizitzaren gainetik. Ez dute prebentziorik egin nahi, horrek esan lukeelako lan antolakuntza langileen premien eta aldarrikapenen arabera egingo litzatekeela, eta langileriaren adimen kolektiboa mehatxua da patronalarentzat.

Zer egiten dute administrazio publikoak, teoriarik, gure eskubideak bermatu beharko litzateke eta, hala ere, konplize bihurtzen dira. Lanaren antolaketan funtzesko ardatza da, baina egiten dituzten legeek horretan esku hartzea galarazten digute. Kalteak murriztea baino ez dute bilatzen, enpresetako politika kapitalista eta neoliberaletan sartu barik. Prebentzioa egiten dutela esaten

dute, baina gauzatzen dituzten politikak lan baldintzak okertzen dituzte, prekarietatea, behin-behinekotasuna, produktio erritmo izugarriak, formazio berezirik eza eta abar ekartzen dituzte.

Konponbidea gure esku ere badago. Lanpostuetan osasuna galtzen dugu, hainbat modutan, eta horixe da agerian utzi behar duguna. Pairatzen ditugun kalteak sorburu argia daukate; erabiltzen ditugun produktu kimikoak, jarrera bortxatuak, zamak, lan erritmoak, txandak, gaueko lana, presio mentala, bortxakeria lanean, jazarpen sexuala, jazarpen moralak...

Horregatik, apirilaren 28 honetan langileei, prebentzio delegatuei, langileen delegatuei,

enpresa eta langileen batzordeei, sail sindikaleei... dei egiten dizuegu gure enpresetako istripuen eta osasun galeraren sorburua zein den aztertzeko, aldaketarako proposamenak definitzeko eta hauek burutzeko modua zehazteko.

Salaketa hau lantokietara eramane behar dugu, miseria guztiak kaleratu, kateak apurtu eta enpresa bakoitzean, lanpostu bakoitzetik hasita, lan osasunaren arazoa kolektibizatu, denon osasunaren defentsan aurrera egiteko, kontzientziazio, mobilizazio eta aldaketa sozialerako dinamika sortu ahal izateko.

Prekarietateak hiltzen du!

MARI MUJICA

(TOLOSA-GOIERRIKO LAB-EN ZENEAN) • TOLOSA

MUSIKA ▶

### Kontzertuak bihar eta etzi Bonberenean

Apirileko azken astebururako ere kontzertuak antolatuta dituzte Bonbereneakoek. Bihar, Neubat taldeak joko du etxean, 22:30ean. Eta etzi, ordu berean, Tseznek eta DJ Amsiak eskainiko dute beren emanaldia.

MERKATARITZA ▶

### Jaurlaritzako diru laguntzak merkatarientzat

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak merkatariei zuzendutako diru laguntzak argitaratu berri ditu. Eskaera hori egiteko zenbait baldintza eta epe betetzea ezinbestekoa da. Interesa duten merkatariek 943 16 06 73ra deituta jasoko dute baldintzen, epeen eta abarren berri.

ANTZERKIA ▶

### Bakarrizketa bihar, Iratxo tabernan

Iratxo tabernan asteburuero antolatuta dituzten kultur ekitaldien baitan, bihar Andoni Agirregomezkortaren bakarrizketa izango da ikusgai. Vaya semana! saioko akortea da Agirregomezkortak, eta zenbait telebista iragarkitan hartu du parte. 23:00etan hasiko da emanaldia.

ATLETISMO ▶

LEIRE MONTES

Egunotako zero garbiek eta eguraldi apartak atzean utzi ditu negu giroko egunak. Haietako batean jokatu zituzten Tolosako atleten infantil mailako Gipuzkoako Txapelketa, hotzez eta euripean, Berazubini. Eguraldi txarrari aurre egin eta domina asko jantzi zituzten herriko atleta gazteek.

Lander Gilek urrezko hiru domina lortu zituen, 150 metroko (18.51 segundo), luzera jautziko (5,20 metro) eta 80 metro hesiko (13.04) probetan. «Emaizta bikainak lortu ditu hernaldearrak; are hobekak infantiletan egiten duen lehen-dabiziko urtea dela kontuan hartzen badugu», azaldu dute taldeko ordezkariak. Gilek maiatzean egingo den Euskadiko Txapelketan parte hartu ahal izango du hala. Jon Ander Ugartemendia tolosarrak ere urrezko beste bi domina jantzi zituen: jabalina jaurtiketan (30 metro) eta pisu jaurtiketan (10.76). Maria Lopez Altunak ere jantzi zuen urrezkoa: 500 metroko proban 1.28 minutuko «marka bikaina» egin zuen.

Xabier Artiedak zilarrezkoa lortu zuen, 150 metroko (18.89 segundo) eta luzera jautziko (5,07 metro) probetan. Eneko Garinek jabalinako proban (28 metro) jantzi zuen zilarrezko domina, eta brontzezkoa 500 metrokoan (1.20 minutu). Mikel Aierbek zilarrezko domina lortu zuen pisu jaurtiketan, 10.60 metroko markarekin.

**Besteak ere, «primeran»**

Tolosa CFko beste atleta guztien lana ere goraiatu dute taldeko ordezkariak: «Azpima-



Tolosa CF atletismo eskolako infantilak, Donostiako Belodromoaren aurrean, artxiboko irudian. HITZA

# Gipuzkoako onenen artean dira infantilak

Tolosa CFko infantilek urrezko sei domina, zilarrezko lau eta brontzezko bat jantzi dituzte Gipuzkoako Txapelketan

rratzeak da egindako ahalegin guztia. Eguraldi petralari aurre egin eta grina eta gogo biziz jardun zuten». Eguraldi txarragatik, hain zuzen ere, altura jautziko proba bertan behera gelditu zen.

Ainara Otamendi 4. izan zen pisu jaurtiketan, 8.35 metroko markarekin. 4. izan zen ere Ramon San Sebastian, 1.000 metro oztopoko lasterketan (3.28 minutu). 5. izan ziren, bestalde, Eneko Tapia 500 metroan eta Ander Lopez jabalinan. Gorka Sobrino 6. sailkatu zen proba

berean, Ander Azkue 9., eta Julen Zubizarreta 10. Josu Gomez 5. izan zen 80 metro hesietan, eta 9. 1.000 metro oztopokoetako lasterketan. Xabier Saizar 6. postuan sailkatu zen, Josu Anta 10. ean, eta Mikel Aramendi 11. ean. 150 metroko lasterketan, Mara Varela 8. postua lortu zuen eta Sandra Lopezek 22.93ko denbora egin zuen. «Mara asko ari da hobetzen proba horretan. Sandrak bere markarik onenetik urrun geratu zen, baina meritu handia du egindakoak, gaixo baitzego-

en». Luzera jautziko proban ere hartu zuen parte Lopezek, eta 4 metroko marka egin zuen.

Tolosa CF atletismo taldeak «etorkizun handiko harrobia» baduela utzi du argi, beste behin.

**MCNBEAUTY**

**MAIATZEKO IGANDE GUZTIAK IREKITA**

**Aldez aurreko hitzorduarekin. Orraztu eta makilatzeak**

**Oria 16 - behea • TOLOSA**

**Tel.: 943 65 58 37**

KULTURA ▶

# Heriotzari aurre egin behar zaionean, irria hautatzen duen obra

'El decameron' antzezlanaren eskainiko du Ados Teatroak bihar gauean Leidorren, Boccaccio-ren maisulana interpretatuz



Boccaccio-ren *El decameron* lana antzetzuko du Ados Teatroak ostiral gauean Leidor zinema aretoan. HITZA

## IRATXE ETXEBESTE

Izurriteak jo du Florentzia (Italia) 1348an, eta gertakari horrek eman dio bidea Boccaccio-ri berak inoiz idatzitako lan garrantzitsua sortzeko. Gai-xoaldia bukatu bitartean «ongi hezitako, zorioneko eta zuhur diren lagun talde batek» hiritik kanpora dagoen etxegune batean babeslekua nola aurkitzen duen kontakten du *El decameron*-ek.

Bienbitartean, txandaka-txandaka elkarri ipuin alai eta adimentsuak kontatzea erabakitzen du lagun talde horrek denbora ahalik eta ongien pasatzeko helburuarekin. Amodio lizunak, pasioak, inbidiak, jeloskortasuna, adulterioa... Engainatutako senarrak, damai segika diren abadeak, fraideak ezkututzen dituzten damak, azpikoetan dabilzan emakumeak... Pertsonaia horiek guztiek, eta beste hainbat gehiagok osatzen dute *El decameron* lan lotsagabe eta bitalista; heriotzaren sendagarri irria nola erabili behar den kontakten duen obra.

«Nire idatzietan emakumezko bat lotsarazteko moduko pasarteak aurkitzen badira, istorioen naturaltasunak berak hala eskatzen zuelako da, eta inpartzialki kontakizun horiek epaitzen saiatzen den oro bat etorriko da nirekin horretan; ezinezkoa baitzen haien izatea aldatu gabe ipuin horiek guztiak beste modu batera kontatzea». Boccaccio-ren maisulan horrek ez du bestelako aurkezpenik behar, beraz.

Bada Ados Teatroak antzetzokietan aurkeztu nahi izan du orain *El decameron*, eta Garbi Losadaren zuzendaritzapean, Javier Barandiaran, Josean Bengoetxea, Jon Ezkurdia, Aitor Fernandez, Alvaro Garaialde eta Xabier San Sebastian dira lagun talde horri bizia ematen dioten aktoreak. Berezko lanaren bertsioa Garbi Losadak berak eginikoa da, Jose Antonio Vitoriaren laguntzarekin, eta lan talde zabalak bermatzen du antzokietan antzezlanak behar bezala irteera. Tolosako Leidor zinema aretoan eskainiko dute antzezlanaren bihar gauean, 22:30ean hasita, gaztelaniaz.

Ostiraleko antzezlanaren ikuste-ko asmoa dutenek badute aukera sarrerak alde aurretik erosteko: Kultur Etxean izango dira salgai ostiral eguerdia bitarte, eta Gazte Txartela dutenek beherapena izango dute, ohiko moduan; hala ere, egunean bertan leihatilan ere eskuratu ahal izango direla jakinarazi dute Tolosako Udaleko Kultura saileko arduradunek.

EUSKAL PRESOK ▶

## Etterat-ek dio sakabanaketak amaitu egin behar duela

Elkarretaratzera deitu du biharko eskualdeko herri guztietan, hileko azken ostirala izanik


## I. ETXEBESTE

«Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban izan berri diren hautakundeetan datozen lau urteei begira alderdi politikoek egindako promesak asko izan dira. Urteak daramatzate, ordea, herri oso bati iruzur egiten, gizarte honek eskualdeko politikoak Euskal Herriratzeko egindako eskariari muzin egiten. Amalgabea da bi estatuen biolentzia jasan duten eta jasaten ari garen herritarren zerrenda, baina amaitu dira estatuek gure eta preso dituzten gure sendearen aurka darabilten biolentziaren aurrean beste aldera begiratzea, bukatu dira isiltasunak; sakabanaketa politikarekin amaitzeko premia larria dugu eta amaituko dugu». Etterat elkarretaren hitzak dira horiek.

Horren harira, sakabanaketa politikarekin amaitzeko «guztion konpromisoa ezinbestekoa» dela dio Etteratek, eta, horregatik, «orain arte beste aldera begiratzen egon diren alderdi politiko, instituzio nahiz eragileei», hausnartzeko eta «herri oso baten aldarriarekin, hitzez nahiz ekinzez bat egiteko» dei zuzena egiten die: «Ezinezkoa da bakegintza aritzea eta sufrimendua lutzatzea eta kolektibo oso baten ahotsa isiltzea helburu dituen sakabanaketa politikarekin jarraitzea». Ildo horretan, Etterat elkarretak esan du «konponbiderantz, pausoak eman behar» direla.

## Elkarretaratzeak, bihar

Hilero-hilero azken ostiralean egiten duten moduan, eskualdeko politikoak Euskal Herrira ekar ditzaten aldarrikatzeko elkarretaratzeak egingo dituzte bihar, eskualdeko herri guztietan, ohiko leku eta orduetan. Anoetan, manifestazioa ere egingo dute 19:30etik aurrera. Etterat-ek dei egin die herritarrei mobilizazioan parte hartzeko, «guztion artean lortuko baitugu eskualdeko Euskal Herrira ekartzea».



## 50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat **DOAN BERRI**arekin



Laguntzaileak



Euskaldunok behar dugun

berria

ADUNA ▶

**Aiztondoko VIII. Pilota Topaketa egina berri dute**

Aiztondoko VIII. Pilota Topaketa izan zen igandean Adun eta emaitza hauek lortu ziren: pre-benjaminak, Ion Iraola eta Ander Elduaian (Aduna) 16, Martin Lizardi eta Eneko Zubiaurre (Alkiza) 6; benjaminak, Peru Labaka eta Jon Erasun (Zizurkil) 16, Enaitz Roteta eta Gaizka Iruetagoiena (Asteasu 2) 7; alebinak, Aritz Segurola eta Egoitz Aranburu (Asteasu 3) 16, Jon Ander Artaza eta Urko arizeta (Asteasu 2) 10; infantilak, Unai Iraola eta Jon Otaegi (Aduna 1) 18; Julen Urruzola eta Aratz Ormaetxea (Aduna 2) 13.

ADUNA ▶

**Bake epailerako eskaerak aurkezteko aukera**

Adunan bake epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko eskaerak aurkezteko epea irekia dago. Epe hori maiatzaren 9an amaitzen da.

ANOETA ▶

**Koadrila Eguna antolatzeko bigarren bilera**

Gaur Anoetako koadrilek bigarren bilera egingo dute herriko festetako Koadrila Eguna antolatzeko. Bilera 20:00etan izango da, udal-etxean.

ANOETA ▶

**Tutorearen bisita eta mintegia gaur KZgunean**

Gaur Anoetako KZgunean tutorea izango da. Tutorea 16:00etatik 20:00etara izango da eta 17:00etatik 19:00etara Asteburu bat Euskal Herrian mintegia emango du.

AIZTONDO ▶

**Bordeleko azokara joateko aukera Aiztondorekin**

Bordeleko azokara joateko interesa duenak izena eman behar du Aiztondon. Bihar da horretarako azken eguna.

ALKIZA ▶ HEZKUNTZA

**Josu Eizmendi ikaslea automozio lehiaketako finalera iritsi da**

Alkizarrak Dani Garcia ikaskidearekin batera Erreterriako Don Bosco ikastetxea ordezkatzeko egunotan Madrilen

IBAN IZA/OARSOALDEKO HITZA

Josu Eizmendi alkizarra Erreterriako Don Bosco ikastetxean, automozioa arloan, ikasketak burutzen ari da. Dani Garcia ikaskide lasartearrekin batera Espainiako eta Hego Euskal Herriko ikastetxeen arteko lehiaketa batetan parte hartu eta finalera iritsi da. 211 ikastetxeetako bikoteen artean, hautaturiko zortzi bikoteen artean daude egun Madrilen egiten ari den lehiaketan parte hartzen. Comforp izena du lehiaketak, hezkuntza nahiz enpresa munduko eragilek sustaturikoa, automozioan dabilzen ikasleei laguntzeko asmoz.

«Lehiaketaren oinarriak eskuratuta, parte hartzera animatu nien ikasleei», azaldu du Don Boscoko irakasle Iñaki del Campo hernaniarrak. Eizmendik eta Garciak parte hartzea erabaki zuten, baina aurretik ikasketei garrantzia emanez. Ikasketez gain, Mercedes auto enpresan praktiketan ari dira biak; hala, ahal zuten lekutik denbora aterata parte hartu dute, eta beti eskola orduetatik



Del Campo, Eizmendi eta Garcia. IBAN IZA/OARSOALDEKO HITZA

kanpo. «Hori da nik gehien barloratzen dudana: biek erakutsi duten grina», dio euren irakasleak, harro.

**Froga teorikoa eta praktikoa**

Lehenik, Interneten galdetegi bat bete zuten, eta ondoren autotoen suspentsioari buruzko lan bat aurkeztu. Elektromekanikako finalera iritsita, egun hauetan beste bi froga gainditu

beharko dituzte: azterketa teorikoa bat batetik, denbora zehatz batetan auto baten matxurak konpontzea bestetik.

Irabaziz gero, 600 euroz gain, Comforp-eko enpresaren baten praktikak egin eta lanposturik lortzeko aukera izango du bikote irabazleak. Euren ikastetxeak, berriz, auto bat edo bi irabaziko lituzke —eskoletan praktika egiteko—, eta aldizkari baten harpidetza.

ADUNA ▶ HIRIGINTZA

**Aranzadi zientzia elkarteak ondare historikoaren azterketa egingo du aurki**

Lan horrekin ondare historikoaren zerrenda zehaztu nahi du Udalak

I. GARCIA

Aranzadi zientzia elkarteak ordezkari batzuk herriko base-riak eta beste ondare historikoak aztertuko dituzte aurki. Udalak eskatu die elkartekoei azterketa lana egitea, herrian dauden balio historikoko erai-kin eta aztarnategiak zehazteko.

Udalak martxoan udal plangintzarako ordezkari arauen ber-razterpenari hasierako onarpena eman zion. Foru Aldun-

diak ondare historikoaren zerrendan hainbat gauza falta zirela eta zerrenda bat bidali zuten, arauetan azaldu zitezen. Honen aurrean, Udalak lan sakan bat egitea erabaki zuten ondare historikotzat hartu behar denaren zerrenda osatzeko eta Aranzadi zientzia elkarte-ari eskatu dio lan hori buruztea.

Horrela, herritarrei gutun bat helerazi die Aranzadikoak aurki pasako direla baserrietatik azterketa egitera azaldu

eta ahal den heinean langile horiei laguntzea eskatuz. Esan bezala, Adunako Udalak udal plangintzarako ordezkari arauen berrazterpenari hasierako onarpena eman zion martxoan, eta iragarkia martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Espedientea ikusi, aztertu eta alegazioak egin nahi izanez gero, udaletxean ikusgai dute herritarrek. Alegazioa egiteko epea, berriz, ekainaren 7an amaitzen da epea.

ZIZURKIL ▶



Jon Tapia. HITZA

**22 urte preso izan ondoren, Jon Tapia bihar askatuko dute**

Lehenengo harrera bihar bertan egingo diote 22:00etan Joxe Arregi plazan

ERREDAKZIOA

Jon Tapia zizurkildarra bihar askatuko dute 22 urte preso egon ondoren. Lehen harrera edo ongietorria bihar bertan egingo zaio 22:00etan Joxe Arregi plazan. Tapia 1983ko apirilaren 6an atxilotu zuten Madrilen eta «10 egunez tortura basatia jasan zuen», azaltzen dute Joni Ongi Etorri batzordekoek.

Hogeitabi urte hauetan hainbat presondegitan izan da: Carabanchel, Alcalá-Meco, Herrera de la Mancha, Cartagena, Salto del Negro, Valdemoro eta Córdoba. Azkeneko denbora Puerto de Santa Mariako espetxean eman du eta bihar bertan askatuko dute. «Inoiz ez da izan Euskal Herriko espetxe batean eta urruntasunaz gain, espetxe politika ankerrari egin behar izan dio aurre», azaldu dute batzordekoek eta «behin eta berriro bere eskubideak aldarrikatzeko burutu behar izan dituen txapeoak, gose grebak, egarri grebak eta abar kontaezinak» direla erantsi dute. Duela zazpi urte bete zituen ezarritako zigorraren 3/4ak eta orduz geroztik «bahitua» eduki dute.

Omenaldi ekitaldia maiatzaren 2an izango da, 12:00etan Joxe Arregi plazan. bertan bertsolariak —Amets Arzallus eta Oihane Enbeitia—, txalapartariak, Anje Duhalde, Iker Goenaga... izango dira. Ekitaldiaren ondoren bazkaria egingo da. Tiketak salgai daude ohiko lekuetan.



## Traste zaharren bilketa

**GAZTELU** ▶ Herenegun bildu zituzten apirilaren 15etik 25era herritarrek plazan utzitako traste zaharrak. Kotxe zaharrak, elektragailuak eta burnizko trasteak, uzti dituzte, etxean alferrik zeuden gauzak, alegia. Burnizkoak Alonso txatarrerira eta gainerakoak Anoetako garbigunera emango dituzte. I.TERRADILLOS.



## Herriko sarrerako obrak

**IBARRA** ▶ Herriko sarreran, Euskal Herria kalean, espaloia zabaldu eta aparkalekuak berritzen ari dira. Proiektuan bi aldeetan aparkalekuak ilaran egiteko asmoa bazegoen, dendari eta herritarren eskaria jarraituz, ezkerrean zeharka aparkatzeko aukera aztertu eta burutuko du Udalak. I.TERRADILLOS

## BERROBI ▶ LIBURUAREN EGUNA

# Liburuaren Eguna irakurle asko erakarri ditu liburutegira

Maileguen truke opari bana jaso zuten gerturatu ziren herritar guztiek



Gaztetxoek euren liburu gustukoena irakurtzeko aprobetxatu zuten Liburuaren Eguna. I.TERRADILLOS



Gogotsu joan ziren txikiak oparia jasotzera maileguaren truke. I.T.

### INIGO TERRADILLOS

Herenegun ospatu zuten Berrobiko liburutegian Liburuaren Eguna. Apirilaren 23an izan ohi da urtero, egun horretan zendu baitziren Shakespeare eta Cervantes idazleak.

Irakurtzaletasuna areagotzea izaten du helburu egun honek. Berrobiko liburutegian hori bultzatzeko mailegu bezala liburu bat hartzen zuen guztientzat opari bat zuen arduradunak. Hori jakinda gogotsu gerturatu ziren gaztetxoak irakurri eta bide batez oparia jasotzeko aukera baitzegoen. Ohikoa baino mailegu gehiago izan ziren asteartean, 25 guzti-

ra, eta oso gustura zegoela adierazi zuten arduradunak.

### III. Literatur Lehiaketa

Bestalde, eta Berrobiko liburutegian antolatzen diren ekitaldiekin jarraituz, III. Literatur Lehiaketa abian da. Partaideek aurkeztutako lanak liburutegian jasoko dira, maiatzaren 5a baino lehen.

Berrobin bizi diren edo ikasten duten 16 urte arteko haur eta gaztetxo guztiek esku hartu ahal izango dute eta zenbait oinarri bete beharko dituzte. Jatorrizko lanak euskaraz aurkeztu behar dira eta banakakoak, jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dute; gaia aukera askekoa izango da.

Lehiaketa lau mailatan banatuko da: lehen mailan 6 eta 8 urte bitartekoentzat izango da; bigarren maila, 9 eta 11 urte bitartekoentzat; hirugarrena 12 eta 14 urtekoentzat eta azken maila 14 eta 16 urte artekoena izango da. Modalitatea, berriz, bakarra izango da denentzat, prosa, alegia.

Sari bezala liburuak jasoko dituzte, Kultur Astearen barruan banatuko direnak. Epaiak Atzibar Zabala, Bittor Madina, Ramon Olasagasti eta Beñoña Olamusu izango dira

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03

**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarano autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Azpiroz, M.L. Amaroz

auzoa 9 (Tolosa).

943 67 51 18

Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza).

112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoeta.** 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

## LEITZA ▶

## Itxinarantz joatekoak dira Mendibilekoak larunbatean

Lekanda mendira igoko dira, 5 bat ordutan; izena gaur eman behar da



Abtulaor Begia. HITZA

J. ASTIBIA

Mendibil mendi taldeak, oraingoan, Itxina mendilerroa antolatatu du ateraldia: Lekanda mendira joanen dira larunbat goizean. 8:00etan dira ateratzekoak Leitzako plazatik. Joan nahi duena, oraindik ere garaiz dabil, izena emateko epea, Maimur edo Astiz liburudendetan egin daiteke, gaur bertan bukatzen baita.

Maiatzeko irteera honetan, Lekanda mendi kaskoan jarri dute mugarría: 1.302 metroko altuera du mendi honek, Bizkaiko Itxina mendilerro ikusgarrian. Bertara joateko, 5 orduko ibilbidea dute prest elkartekoek: abiatu Orozkoko Urigoiti auzotik egiten dira (420 m) eta Aldabideko iturburuan gora, Atxulaor Begitik (karaitzean dagoen harrizko zubi naturala) barrena, kaskoratzeko.

Orozkoko bailara ez ezik, Arratia eta Gorbeia aldeko ikuspegi paregabeek gozatzeko aukera izanen dute.

## LEITZA ▶ KULTURA



Ezkerretik eskuinera, Migel Mari Elozegi, Sergio Merino eta Kristina Urrutia dira, antzerki lan komiko honetako aktore-aktoretzak. HITZA

## 'Parle vu euskera' lana ikusgai bihar

Leitzako Xagu antzerki taldeak eginda, Saharar Herriarekin elkartasunez

JAIONE ASTIBIA

Bihar gauean, 22:00etan hasita, *Parle vu euskera* antzerki lana ikusteko aukera izanen du, Leitzako zinema aretora joaten denak. Izan ere Leitzako Xagu taldeak, lan honekin aurrerako asteetan egin duen antzerki itzuliari, lau herritan izan dira aurretik, herrian emanen dio bukaera.

Xagu taldeak, oso-osoan beraien prestatu duten antzerki ikuskizuna eskainiko du. Lan hau, duela bi urte *Maldamakor* izenburuarekin antzeztu omen zuten herrian, horrelaxe adierazi zioten HITZARI berriz ere antzerkia egiten hastekoak zirela jakinaraztean. Eta Korrika Kulturaleko antzerki gidioien lehiaketara aurkeztu ondoren,

*Parle vu euskera* sortu omen zuten, «gidoian, pertsonaietan, errepertoan... aldaketa eta moldaketak eginda».

Horrela bada, «turismo buleroko batetik igarotzen diren pertsonaia desberdinen gora-beherak, sortzen zaizkien egoez...» antzeztuko dituzte, «pertsonaia berriak eta esketx berriak eginez». Oso pasarte komikoak dituen lana da beti ere eta ordu bete eta laurden inguru irauten du.

Dena den, elkartasunezko ekitaldia ere izanen da, aipatzekoa baita, saio hau Saharar Herriarekin Elkartasuna taldearekin batera antolatatu dutela. Horrela, saio horretan jasotzen dena «udan saharar haurrak ekartzeko gastuen ordainketarako laguntza» izanen delarik.

## LEITZA ▶ UDALA

## Hirigintzako gaiak dira eztabaidagai nagusi

Udalbatzarra egiten dute bihar 21:00etan

J. ASTIBIA

Gehienbat hirigintzako gaiak izanen dituzte eztabaidagai, bihar ostirala, 21:00etan Leitzako udaletxeko batzar aretorean egiten duten bilkuran.

Mahai gainean izanen dituzten 8 puntutatik 5, halaxe dira eta, erredakziora herenegun igorri zuten deialdiko gai zerrendan erreparatu: «UE30 eta UE31», eta «UE4 eta UE5 eremuetako Hirigintza Planaren aldaketa puntualak»; «alde zaharreko etxeen» gainean, beste hainbeste; eta bai-

ta, «lurzoru ez urbanizagarrietako etxebizitzaren» inguruan ere. Hauei, «1. poligonoko 232.lurzutiaren inguruko proposamena», gehitu behar zaie.

Baina hirigintzaz gain, «kiroldegi, pilotaleku eta igerilekuaren kudeaketarako esleipena» ere tratatuko dute, «Malloko egur-loteaz» berdin egiteko.

Larrain Herri Plataformak aurkeztutako erabaki-proposamena ere hizpide izanen dute, bukaerako «ohar eta berri-emateak» baino lehen.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

## 'EPP-ak Euskal Herrira!' lelo, biharko giza-kateak

Igor Astibia presoak, moduluz aldatu dute

J. ASTIBIA

Bihar, hilabeteko azken ostirala delarik, 20:00etan hasita, «euskal preso politikoak Euskal Herrira» leloarekin egiten duten giza-katean parte hartzeko deialdia egin dute.

Ekimen horrekin, «EPPK-aren isolamendu politikoaren aurka eta estatus politikoaren aldeko aldarria», egitea omen dute helburu.

Bestalde, Igor Astibia Leitzako preso politikoaren senide eta lagunek adierazitakoaren arabera, Astibia Navalcarnero (Espainia), Madrid IV kartzelan, moduluz aldatu zuten hilaren 12an, lehen zegoenetik, 5. modulura eramanez. Bide batez, preso politiko ho-

rren egoeraren inguruan «fiskalak ez omen du kasua irakurri ere egin», horixe da abokatuari erantzun diona, berarekin hitz egitea lortu duen aldi bakanean», adierazi nahi izan zuten. «Ondorioz, defentsak egindako eskaerak ez dute inolako erantzunik jaso oraindik. Kasua geldirik dago. Fiskalak erantzuten ez duen bitartean, ezin baita eskaera berrikusteko prozedurarik hasi», argitu zuten: «Dena luzatuz doaz, atzeratuz. Ez-jakintasuna eta berririk eza aregotuz. Eta bitartean, Igorrek ia 5 hilabete eta erdi daramatza preso: 164 egun pasa ditu, askatasunik gabe», zioten atzokoan, egoeraren balorzioa egiterakoan.

HITZA **txokoa** lagunen

'Lagun ezazu  
HITZA laguntzen'

HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketatutako ARANDIA jatetxean 4 lagunentzako bazkari edo afari eder baten irabazlea:

ITZIAR AIZPURUA ETXEBERRIA (LEABURU)



**ARANDIA**  
JATETXEA

Telf. 943 65 22 62

ALTZO

Tolasaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko apirilaren 28a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aizoa, Abatub, Alegia, Alkiza, Alzo, Anchedeta,  
Anoeta, Anso, Balamán, Beldartza, Berastegi, Berriki, Etxuan, Hernialde,  
Ibañeta, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo, Irujo,  
Zuzen Besterik: Leizaldekoko Euskararen Batzarra

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza  
Kultura Salla

Eusko  
Jaurjaritza  
Kultura Salla

Eusko  
Jaurjaritza  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzena

12

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### ANTZERKIA

**Anoeta.** *Bakartxoren zapatiak* txotxongilo emanaldia. 18:00etan, liburutegian. Kultur Errotaren baitan.

### DEIALDIAK

**Anoeta.** KZgunean tutorea izango da 16:00etatik 20:00etara. Asteburu bat Euskal Herrian mintegia 17:00etatik 19:00etara.

**Anoeta.** Koadrila Eguna antolatzeko bilera 20:00etan udaletxean.

**Berastegi.** 1966 eta 1970 artean jaiotakoan afaria. Izen-ematea, Tere edo Elixabeteri deituta: 656 76 14 82 —iluntzetan— edo 943 68 35 56.

**Tolosa.** Pirinioetara irteera (Gavarnie ingurura) Oargi elkartearekin, hilaren 29tik maiatzaren 2ra. Izen-ematea 637 83 03 80 telefonoan.

**Tolosa.** Aralarko Adiskideak elkarteak Tolosa-Ernio-Tolosa lasterketa antolatu du maiatzaren 14an. 20 km eta 1.000 metroko desnibela dira. Izen-ematea, Tolosaldean Tourren (Santa Maria plaza, 943 69 74 13).

**Tolosaldea.** Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Bordeleko Nazioarteko Azokara irteera antolatu du, maiatzaren 2an. Bihar da izena emateko azken eguna, 943 69 39 30.

**Villabona.** Biltoki jubilatutako elkarteak urteroko martxan antolatu du Zizurkilan. Bihar da izena emateko azken eguna, elkartean.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Luis Maria Nuñezen koadroak, jubilatuen tabernan.

**Hernialde.** Mertxe Etxeberria hernialdetarraren olio-pinturak Ostatan.

**Tolosa.** Miren Gonzalezen eta Matxin Labaien koadroak. Maiatzaren 28a arte egongo dira ikusgai, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Omar eta Marcos pintore kubatarren erakusketa, Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Kubako Santa Clara herriko ikasleen olio-pinturak jarri ditu ikusgai, Cuba P'alentan Lagunen elkarteak, Lanbroa tabernan.

# Sorginen garaia irudikatuz

**TOLOSA ▶** Suediako telebista baterako film bat grabatzen aritu dira asteburuan Araitz bailaran tolosar gazte eta heldu batzuk



Aktore tolosarrak filmaren irudi batzuk grabatzen Araitz bailaran aurreko asteburuan. HITZA

### JOXEMI SAIZAR

**A**besbatza eta dantza mundutik abiatuta, telebista munduan elkartu dira. Suediako telebista errealizatzaile batek —Christian Arnet— sorginei buruzko film bat grabatu nahi zuen Euskal He-

rrian eta erreferentzia bakarra Tolosa Ekinbide Etxeko (CIT) Luis Ceberio zuen aktoreak eta lekuak bilatzeko laguntza eske. Zergatik? Duela urte batzuk Gary Graden ospetsuak zuzentzen zuen Saint Jacobs abesbatzarekin hemengo lehiaketan parte hartu zuelako.

Ceberiok Udaberri dantzari taldera jo zuen laguntza eske. Hango gazte batzuk eta beste pertsona heldu ezagun batzuk aritu dira asteburuan film horretarako irudiak grabatzen Nafarroako Araitz bailaran, Jose Mari Tuduri zingile tolosarra, Iribasen bizi diren Ra-

mon Cabestany eta Marta eta Arriben bizi den Txitxi Orbegozo tolosarrak bilatutako lekue-  
tan.

Suediako TV4 telebista katean telesail modura emango dute datorren urte hasieran audientzia handiko orduetan *Häxornas tid* —Sorginen garaia— izenburupean. Jan Guillou da aurkezlea, Suediako ezagunena. XVII. mendean Lapurdin zerbitzari bezala aritu ondoren Zugarramurdira itzultzen den Maria Ximildigiren istorioa kontatzen du. Alonso Becerra eta Juan del Valle inki-satzaileek sorgintzat hartzen dute eta Alonso Salazarrek defenditzen du.

Filma behar bezala kokatuko, garai hartako lekuak eta jantziak behar izan zituzten. *Akelarre* filma grabatzeko erabili ziren tokietara jo zuten. Al-biasu, Uztegi, Gaintza eta Iribasen izan dira irudiak hartzen larunbatean eta igandean. Suediarrek Zugarramurdi, Ur-dazubi eta Logroñon ere izan dira irudi batzuk hartzen.

Lehen ere Udaberriko batzuk *Segoviako ihesa* filman parte hartu zuten. Dantzatik zinemara pauso eman dute berriro.

### AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



### URTE ASKOAN

Adei Tolosa Alonso. Gaur urtebete. Zorionak eta muxu bat. Aita, ama eta familiaren partetik.



### URTE ASKOAN

Maite Gallurralde Balerdi.

Gaur 9 urte.

Zorionak etxekoan partetik.



### ZORIONAK OLATZ

Gure Olatzek dagenek 5 urte!! Best

muxu Jon, amabio, aitaio, teba-osaiba,

aiton-amona eta gainerako guttien partetik.